

LITERATURA. Aurkezturiko lanen maila egokia ez zela-eta olerki ataleko saria eman barik utzi du epaimahaiak

Aitor Aranak bi sari eskuratu ditu Euskaltzaindia eta BBKren lehiaketan

Eleberri eta antzerki arloan nagusitu da, eta saiakeran, berriz, Xipri Arbelbidek irabazi du

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Orain arte horrelakorik ikusi gabeak ziren antolatzaileak, baina noizbait gertatu behar eta aurten egokitu da pertsona berak Euskaltzaindia-BBK lehiaketako eleberri eta antzekiko sariak eskuratzeko. Zorioneko idazlea: Aitor Arana. Saiakeran, berriz, Xipri Arbelbide nabarmendu da *Jean Pierre Goytino: Californiako Eskual Herria* lanarekin. Aurkezturiko lanen maila egokia izan ez dela eta, olerkiari zuzenduriko saria eman barik gelditu da.

Gurasoen herentzia jasotzeko etxe bakartu batean bilduko dira bost ahizpa. Baina tramite hutsa zirudiena egoera deseroso eta itogarri bihurtuko da. *Bost ahizpa*-k Agatha Christieren nobela beltzen itxura du, eta nahita bilaturiko efektua dela dio Aranak. Lehiaketako klasiko bihurtzeko bidean da egilea, haxe baita nobela sailean saritu duten hirugarren aldia. Egile bakarrak lortu du Legazpiakoaren marka bera: Txomin Peillenek. Eta patuaren kontuak, Aranaren lana epaitu behar izan dutenen artean egon da Iparraldekoa. Gorka Aulestia eta Ana Toledo epaimahai-kideen izenean, *Bost ahizpa* eleberriari Aranak emandako suspense ukitua goraiatu du Peillenek. «Istoriok lasgarria da, hasieratik amaiera arte irakurle harrapatuko duena».


Joko psikologikoei jarraituz, bi lagun arteko norgehiagoka irudikatu du Aranak *Lagun mina* antzezlan sarituan. Gure gizarteko zurrumbiloan, bere burua babesteko gezur handi bat eraiki eta gezur horren barruan eroso bizitzen ohitu dena prest ote dago bizitza honetan egiazko balioa duten gauzak ez galtzeko? Prest ote dago maitasunari edo adiskidetasunari eusteko? Aitor izeneko aktorearen eta bere lagun min Seberen istorioa kontatzen du *Lagun mina*-k. Kontakizunak aurrera joan ahala, adiskidea zeinen erraz traizionatu daitekeen konprobatuko du irakurleak. «Ez da

bat-batean erabakitako epaia. Luze eztabaidatu dugu, eta, antzerki lanaren balioa kontuan harturik, saria *Lagun mina* obrari ematea erabaki dugu», azaldu du Patri Urkizu epaimahaikoak. «Gai benetan berezia jorratu du Aranak, eta duintasun handiz gainera. Oso gutxitan agertu da horrelakorik euskal antzokietan». Urkizurekin batera, Eugenio Arozenak eta Daniel Landartek osatu dute antzerki arloan epaimahaia.

Euskarazko lehen kazetaren arrastoaren bila

1893an, uztailearen 15ean, *Californiako Eskual Herria* astekaria agertu zen, Los Angelesen. Euskara hutsez argitaratu zen, publizitatea barne, eta Jean Pierre Goitino izan zen haren sortzaile, sustatzaile eta zuzendari. Bost urte eskas iraun zituen argitalpenak, eta, Xipri Arbelbidek kontua gaurko egunera ekarri izan ez balu, honezkero erabat ahazturik egongo litzateke. Izan ere, ordukoak ikertu, informazioa handik eta hemendik bildu, eta halaxe osatu du *Jean Pierre Goytino: Californiako Eskual Herria* saioa. «Hiru lan epaitu behar izan ditugu aurten: Etruskoen historiari buruzkoa bat, euskal mitoen ingurukoa bestea, eta Xiprirena hirugarrena. Lehen biak interesgarriak ziren, baina epaimahai-kideok behala ohartu ginen Xipriren lanaren garrantziaz», dio Xabier Altzibarrek. «Ez bakarrik kazetaritzaren historiarentzat, historia osoarentzat obra interesgarria da. Gainera, ikerketa lana izanda ere, egileak euskara bereziki ohargarria erabili du, bizia eta atsegina». Altzibarrek, Antton Aranburuk eta Adolfo Arejitak osatu dute saiakera arloko epaimahaia.

Bestalde, Lourdes Otaegi, Jon Kortazar eta Mikel Lasa kide izan dituen epaimahaiak saririk gabe utzi du olerki atala. «Lau obra genituen, poesia saritu behar genuen, poesia bilatu genuen, baita aurkitu ere, baina saria merezi zuen libururik ez zegoen», dio Otaegik.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS
Sartuak, atzoko ekitaldian.

AITOR ARANA

Txomin Agirre eta Toribio Altzaga sarien irabazlea



«Antzezlanekiko grina piztu zait irakurtzearen ondorioz»

«Ustekabe atsegina izan da». Halaxe laburbildu du Aitor Aranak eleberri eta antzerki arloan saritua izateak eman dion poza. Orain arte nobelagile moduan ezagutzen genuen Legazpikoa, eta, alde horretatik, *Bost ahizpa* dagoeneko bete-beteta duen saskian sari bat gehiago izango da. Askozaz paradoxikoagoa da *Lagun mina*-rekin gertatu zaiona, lehendabiziko antzezlan idatzi, eta horixe saritu baitiote. «Bataio polita, ezta?», dio. «Aurten antzezlan asko irakurri ditut, eta antzezlanekiko grina piztu zait azkenean. Lanaz gainezka ibili naizen arren, tarteetan idatzi dut obra, baita garaiz amaitu ere». *Bost ahizpa*-n, berriz, suspensearen indarra ukatu barik, pertsonaien psikologiak hari narratiboan duen eragina nabarmendu du. «Garrantzitsuena ez da hiltzailea nor den asmatzea, baizik eta emakume horien artean gertatzen dena ulertzea».

XIPRI ARBELBIDE

Mikel Zarate sariaren irabazlea



«Kaliforniako kazetarekin liburu bat egin daiteke»

«Zenbaitek uste dute *Eskualduna* izan zela euskarazko lehen astekaria, eta ez da horrela. Bazituen atal batzuk frantsesez, eta Kalifornian agerturikoa, aldiz, euskaraz zen oso-osorik, publizitatea barne. Horrek badu merezimendua». Orain dela hamar urte egin zuen topo Xipri Arbelbidek Jean Pierre Goitinoen kazetarekin, eta ordutik hona arrastoa jarraitu dio. «Ez da bilaketa erraza izan, ez baita argitalpenaren alerik geratzen. Bakarra dago, Parisko liburutegian. Hendrike Knorrek fotokopiatu egin zuen, eta kopia bat Baionan utzi zuen. Hura eza-gutu dut nik. Goitinek zioenez, bi mila ale botatzen zituen, baina ez dakit egia den», azaldu du. «Argitalpenetik artikulua andana bat hartu, eta liburu bat egin daiteke bai orduko idazleen lanak aztertzeko, bai garai haietan Amerikan bizi ziren euskaldunen bizitza ezagutzeko».

Euskadiko Liburu Azoka

GALDAKAOKO 10. EUSKAL LIBURU eta DISKO AZOKA

Muguru kalea - Abenduaren 13tik 24a arte.



- **Euskal Nobedadeak**
- **Euskal Disko berriak**
- **Bideoak**
- **%10eko beherapenak**

BIZI IRAKURRIZ.